

ORBEA, ALTZAIRUAREN MALGUTASUNA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Eibar, 1840. Juan Manuel, Mateo, Casimiro eta Petra Orbea Murua neba-arrebek errebolberrak eta pistolak egiteko Orbea Hermanos lantegia sortu zuten. Hamarkada bakarrean armaginen herriko enpresarik handiena izatea lortu zuen eta, mendea amaitu baino lehen, 1890ean, fabrika elektrifikatzea erabaki zuten. Horretarako zentral hidroelektriko txiki bat eraiki zuten, eta negozioa egokitzeke eta dibertsifikatzeko inolako arazorik ez zutela erakutsi zuten: zentraleko energia soberakina saltzen hasi ziren, suzko arma laburrez gain.

1895ean hil zen lau neba-arrebetan azkena. Enpresak 50 langile zituen orduan; 1906an, aldiz, 400dik gora (eta hiru zentral hidroelektriko). Baina marka guztiak Lehen Mundu Gerrarekin hautsi zituzten: 1916. urtean soilik 725.183 arma esportatu zituen Orbeak.

Jakina, Gerra Handiarekin batera amaitu zen armagileen pagotxa. Hala, pixkanaka, Orbeak gero eta arma gutxiago ekoiztu zituen. Makina-erremintaren esparruan sartzen hasi ziren, tornuak, fresatzaileak edo zulatzeko makinak eginenez. Baina, hasieratik Orbea altzairuzko hodiak egitegailendu zen, eta bide horretan hasi zen haur kotxeak, gurpildun aulkiak eta, batez ere, bizikletak egiten.

1940ko hamarkadan enpresak 1.000 langile zeuzkan eta urtean 50.000 bizi-



SANTIAGO GARCIA SANCHEZ

1884ko Orbea errebolberrak, "Ona" sistema erabiltzen zuena eta hamaika milimetroko kalibrekoa, hamar urte lehenagoko Smith & Wesson modeloan oinarritua. Besteak beste Espainiako Guardia Zibilararen arauzko arma izan zen 1924. urtean erretiratu zuten arte.

kleta ekoizten zituen. Eta ez zen metalizko egiturara mugatzen, txirringen ia osagai guztiak bertan egiten baitziren.

Hogei urteko egonkortasuna ekarri zuen ildo berriak, baina 1960ko hamarkadan gizartearen motorizazioak eskaera nabarmen jaistea eragin zuen. Horretara ere egokitzeke ahalegina aurrez egin zuen Orbeak, hamar urte lehenago Frantziatik zetorren Velosolex sistemaren bidez motordun bizikletak ekoiztu baitzituen. Baina ez zen nahikoa izan. 1969an ordainketa-etendura iri-

tsi zen eta enpresa ixtekotan egon zen. Orduan, Esteban Orbeak 1.500 langileei utzi zien marka, eta haiek kooperatiba sortu zuten. Leihaketarako bizikletetan espezializatuta, berriro ere lehiakor izatea lortu zuten.

Denboraz, txirringetako altzairua aluminio, karbono... bihurtuko zen. Eta, azkenik, urre. 2008ko Joko Olinpikoetan, Samuel Sanchezek errepidean eta Julien Absalonek BTn metal horretako domina bana irabazi baitzuten Orbea bizikleten gainean. ■



ITALIAKO KULTURA MINISTERIOA

Suak ondarea babesten duenean

Erromako metroko C linea zabaltzeko lanetan, Trajanoren garaiko (K.o. II. mendeko) eraikin baten arrastoak topatu dituzte. Mosaiko eta fresko zati ederrak topatu arren, aurkikuntza berezientak egurrezko egiturak izan dira: hainbat habe, aulki baten hankak, balaustrada zati bat eta mahai errektangularrak handi bat.

Oiasson, adibidez, buztinak egurrezko egiturak babestu zituen eta gugana oso egoera onean iritsi dira. Baina Inperioaren hiriburuan ez da orain arte halakorik aurkitu. Pompeia eta Herkulano sumendi batek suntsitu zituen; Erromako eraikin hau, sute batek. Suak egurra ikaztu eta horregatik aurkitu dira egitura horiek hain egoera onean. ■